

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein da gure bezeroa?

Gure bezero nagusiak bi talde argi eta zehatzetan banatzen ditugu:

1. Merkatu-nitxoa:
 - Jasangarritasuna eta edertasuna bateratzea nahi duten gazteak.
 - Hauek kontzientzia ekologiko eta etiko handia dute, eta ingurumenari edo animaliei kalterik egiten ez dieten produktuak erabiltzea nahi dute.
2. Segmentatutako merkatua:
 - 20 eta 35 urte bitarteko gazteak dira, itxura zaindua edukitzea gustatzen zaienak.
 - Sare sozialetan aktiboak dira eta produktu berriak eta modernoak bilatzen dituzte, baina etikarekin eta ingurumenarekiko ardurarekin bat datozenak.

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Merkatu-nitxoa

- Ohiturak:
 - Jasangarritasuna lehenesten dute euren erosketa-erabakietan.
 - Ingurumena zaintzen duten eta animalietan probatu ez diren produktuak erabiltzen dituzte.
 - Kalitatezko kosmetikoak bilatzen dituzte, baina etikarekin bat datozenak.
- Helburua: Estetika eta jasangarritasunaren arteko oreka aurkitzea.

Segmentatutako merkatua

- Ohiturak:
 - 20-35 urte bitarteko gazteak dira, itxura zaindua mantendu nahi dutenak.
 - Sare sozialetan inspirazioa eta produktu berrien informazioa bilatzen dute.
 - Online erosketa egitea gustuko dute, azkarra eta eroso delako.
- Helburua: Estetika zaindua lortzea, baina ingurumenarekiko eta etikarekiko ardurarekin.